

Saratarrai bi hitz

(“SARA’KO ERREPUBLICA” ospatzeko, 1948.an
Saratarrak egin zuten jaian erranak)

LARRUNDIK sortalderat badugu choko pollit bat. *Sara*
Zugarramurdi, Ainhoa eta Urdazuri.

Lehengo mendetan oihan izigarriak ömen. Dena
chara, beherean beintzat. Gainak soil : Larrun,
Ibanteli, Nabarlatz, Atxuri orai bezala larredi. Art-
zainak beren artaldeekin han zabitzan beti.

Orduan, bear bada, gizonen errepublika izan
zen gainetan ; baina behereko oihanetan ihiziak
nausi.

Lurrek etzuten jabē berezirik. Oraino etzen
mugarriendako teilarik ; lurren berechteko etzen
askarik ez lezojnik.

Geroago saratarrak hasi ziren etche batzuen be-
heretan egiten eta lurren iraultzen : Lehenbizkai’n,
Istilarte’n, Ialarre’n ta Elbarru’en.

Eliza bat buru ; elizañoak inguru. Santa-Katelin,
Santa Barbara, Olain eta Larrun : etcheen gerizat-
zeko, lurreko gauzen zäintzeko.

Munoetan bordak : etche bakotchak berea.
Eltaorrak otsoekin bazuen hor zer egin ; aizkorak
ere bai oihanekin, eta ihiztariek ihiziek.

Orai duela bortzeun urte baziren Sara'n 83 etchejabe. Artzain-mutilak geiago naski.

Duela laueun urte, 400 deitura Axular erretorak aipha zituen Sara'n. Horietarik 34 bakarrik orai ageri ; bertzeak gan ziren. Norat ? Irietarat, Ameriketarat... Horien ordezt 200 deitura berri sartu dire Sara'n, naparrak ainitz.

Mende hoietan saratar geienak artzain eta laborari ziren. Dantzak eta jostaketak maite : pilota soroak nunai. Artzainjokua — Naparroa'ko armaharian ezarria — zaharrendako eta haurrendakoa on zen.

Ainitz saratar baziren aldiz mariñel zabiltzanak: Terranova'n eta bertze eskualdeetan. 1725ko Agorrilaren 18n, borts hilen-otoitz Sara-ko elizan egin ziren, Terranova'n ito saratarrendako. Duela 144 urte baziren oraino Sara'n hamazazpi mariñel, itsasoetan zabiltzanak.

Urte guziak etziren berdinak. Baziren onak, baziren tzarrak. Eritasun izigarriak ere : 1719ko Agorril-buruiletan 26 lagun hil ziren Sara'n ; eta 1751ko Agorritetik Eguberri arte 50 haur ehortziak izan ziren.

Denbora hetan Sara errepublika deitzen zen. Gauza ainitzetan bere-buru zabilan. Bear bada orai baino entzute haundiagoa zuen munduan. Bainan zerua goibeltzen batzuetan. Orduan ere orai bezala, choriak beren mokoarekin.